

Babesa eta GENEROari buruzko komunitatearen zerbitzurako proiektuak lantzeko gida praktikoa

Sentsibilizaziora eta sormenezko
komunikazio-kanpainetan laguntzera
bideratutako ibilbide didaktiko
pertsonalatuak Bigarren Hezkuntzarako.
Mozambikeko neskatoen eta emakumeen
egoerari arreta berezia jarritz.



BABESA 47

Errefuxiatuen eskubideen aldeko
hezkuntza irakasleentzat

© UNHCR / H. Caux



Kredituak:



KOORDINAZIO TEKNIKOA:

Uxue Rastrollo Elvira

EGILEAK:

Helena Rodríguez De Guzmán
www.educarconvalor.com

Jorge Castañeda
www.jorgecastaneda.es

EDIZIOA:

Uxue Rastrollo Elvira
Iratxe González Aspiazu
Aintzane Alzola Aparicio

MAKETAZIOA:

Julia Pérez
www.proyectoscomunicacionvisual.es

Argitalpen hau Bizkaiko Foru Aldundiaren finantza-laguntzarekin egin da, 2024ko “Lucha contra la violencia sexual y de género (VSG) y la vulneración de derechos de las mujeres y las niñas en Mozambique y fortalecimiento de las capacidades del profesorado de Bizkaia para sensibilizar al respecto” proiektuaren barruan. Argitalpen honen edukiaren erantzukizuna ACNUR Euskal Batzordeari baino ez dagokio, eta ez du nahitaez islatzen Bizkaiko Foru Aldundiaren iritzia.

Aurkibidea:

01	Nor gara? 5
02	Proposamen pedagogikoa 6
03	Web tresnaren erabilera 10
04	Ibilbide didaktikoak 12
05	Kontzeptuak argi 18
06	Gehiago jakiteko 20
07	Landutako funtsezko konpetentziak 22



Glosarioa:

ACNUR:

Errefuxiatuentzako Nazio Batuen (NBE) agentzia.

GEH:

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza.

LOMLOE:

Hezkuntzari buruzko Lege Organikoa aldatzen duen Lege Organikoa.

DBH:

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.

IKZ:

Ikaskuntza-zerbitzua.

GE:

Giza Eskubideak.

GJH:

Garapen Jasangarrirako Helburua.

Dokumentu honetan, “errefuxiatu” eta “behartuta desplazatutako pertsona” terminoak ACNURen agindupean dauden pertsona guztiak aipatzeko erabiltzen dira: errefuxiatuak, itzultitakoak, aberrigabeak, barne-desplazatuak eta asilo-eskatzaileak.



© UNHCR / T. Herrera

Nor gara?

KOMUNITATEAREN ZERBITZURAKO PROIEKTUAK LANTZEKO
GIDA PRAKTIKOA

ACNUR, Errefuxiatuentzako NBEren Agentzia, gatasketatik eta jazarpenetatik ihes egitera behartutako pertsonen bizitza eta eskubideak babesten dituen nazioarteko erakundea da. ACNURen helburuetako bat da errefuxiatuentzako etorkizun hobea bultzatzea. Horretarako, irakasleei laguntzen die XXI. mendeko hezkuntza-arloko erronkei aurre egiten dieten hezkuntza-baliabideak eskainiz, baita behartutako desplazamenduak eta haien konplexutasuna ulertzen laguntzeko baliabideak ere.

ACNUR Euskal Batzordeak konpromiso sendoa du sentsibilizazioarekin, parte-hartze solidarioarekin eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzarekin (GEH). Hori dela eta, hezkuntza-komunitateekin egiten dugu lan, bereziki ikastetxe, institutu eta unibertsitateetan, herritartasun kritikoa, gogoetatsua eta konpromisoz jokatzeko duena bultzatze aldera, eta errefuxiatuen eta desplazatuen errealtatea eta ACNURen lana ulertaraztetik abiatuta.



ACNUR Euskal Batzordeari eta hark GEHren alorrean egindakoei gehiago jakiteko:



Webgunea



Jo www.eacnur.org webgunera, non, nola eta norekin lan egiten dugun jakiteko.

Bideoak



Funtsezko kontzeptuei buruzko informazioa jasotzeko [ACNURen lanari buruzko bideo informatibo](#) sorta hau ikus dezakezu.

Tresnak



<https://eacnur.org/es/babesa-47> webgunean, "Errefuxiatuei buruz irakastea"-ri buruz dauden hezkuntza-baliabideak eta bideo hezigarriak erabil ditzakezu.

Proposamen pedagogikoa

gizarte inklusiboak eta xenofobiarik gabeak eraikitzeko

KOMUNITATEAREN ZERBITZURAKO PROIEKTUAK LANTZEKO
GIDA PRAKTIKOA

Zoritxarrez, egunero-egunero, milioika pertsonak behartutako desplazamenduak pairatzen jarraitzen dute¹ planetako puntu askotan; izan ere, migrazio-fluxuak esponentzialki ugartu dira azken urteetan, larrialdi klimatikoaren eta gatazka politiko, sozial, ekonomiko eta/edo erlijiosoen ondorioz.

ACNUR Euskal Batzordean uste dugu funtsezkoa dela hezkuntza-komunitatearekin lan egitea aldaketa esanguratsuak eragiteko. Hori dela eta, Babesa 4.7 programaren barruan, hezkuntzako profesionalekin egiten dugu lan, babes emateari eta behartutako desplazamenduari buruz sentsibilizatzeko, eta lan-jardunean erabil ditzaketen tresnak ematen dizkiegu.

Garapen
Jasangarriako
4. helburuaren
(kalitatezko hezkuntza)
4.7 xedearekin egiten
dugu bat.



“Hemendik 2030era, ikasle guztiek garapen jasangarria sustatzeko beharrezkoak diren ezagutza teorikoak eta praktikoak eskuratzen dituztela ziurtatzea, besteak beste, garapen jasangarriko eta bizi-estilo jasangarrietarako, giza eskubideetarako, genero-berdintasunerako, bakearen eta indarkeriarik ezaren kulturaren sustapenerako, munduko herritartasunerako eta kultura-aniztasunaren baloraziorako eta kulturak garapen jasangarriari laguntzeko, hezkuntzaren bidez.”



©ACNUR / R. Hussein Rasheed

ACNUR Euskal Batzordean uste dugu hezkuntza-inguruneen indarretako bat ikasleei hezkuntza-prozesu eraldatzaileak ematea dela, besteak beste, metodologia parte-hartzaileen, kooperatiboen, gogoetatsuen eta zerbitzuari lotutakoen bidez. Indar horretatik sortu da Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako (GEH) ekimenen bidez bigarren hezkuntzako eta unibertsitateetako hezkuntza-ekimenen prestakuntzan eta laguntzan dugun interesa eta esperientzia.

Hezkuntzaren misio hori indartzeko, ACNUR Euskal Batzordeak Babesa 4.7 [Sentsibilizaziorako eta Ikaskuntza-Zerbitzurako tresnak](#) jarri ditu hezkuntzako profesionalen eskura, errealitatearekin oso lotuta dagoen hezkuntza-praktika bat sustatzeko, eta horrela, **gizarteak errazago uler ditzan behartutako desplazamenduen kausak eta ondorioak.**

IKUS IBILBIDEA



1. Datu eguneratuak: <https://www.acnur.org/es-es/datos-basicos>

Gure planteamenduak ikas-egoera adierazgarriak garatzearen aldeko apustua egiten du. Egoera horiek xehetasuna, ikuspegiak eta metodologiak zaintzen dituzte, ikaskuntza ikasleen potentzialean oinarrituta gerta dadin, funtsezko 3 ardatzen bidez:

1

Derrigorrezko Bigarren
Hezkuntzako (DBH)

hezkuntza-proiektuen arloan erabilgarriak, sortzaileak eta aplikagarriak diren tresna didaktikoak eskaintzea, [77/2023 Dekretuan, maiatzaren 30ekoan, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoan](#), jasota dagoen bezala.

2

IKZ metodologian

oinarritutako hezkuntza-esperientzien garapena sustatzea. Esperientzia horiek gizarteari eskaintako zerbitzuak eta zerbitzu horien bitartez lortutako curriculum-gaitasunak eta gaitasun pertsonalak lotzen dituzte. Horri esker, funtsezko elementu baten ekarpena egiten da balio enpatikoetan, elkartasunean eta giza eskubideekiko (GE) erantzukizunean oinarritutako gizartearen eraikitzeak.

3

Gazteen partaidetzarako
funtsezko tresna bat

eskaintzea, errefuxiatuen eta desplazatuen eskubideen inguruko ikuspegi inklusiboetan eta xenofobiarik gabekoetan oinarritutako narratiba berriak ikusaraztera, zalantzan jartzera eta sustatzera bideratutako **komunikazio-kanpaina komunitarioen** eraikuntzan oinarrituta.

ACNUR Euskal Batzordeak apustu sendoa egiten du metodologia horren alde hainbat hezkuntza-inguruetan, eta hezkuntza-tresna gisa erabiltzen du tokian-tokian nahiz mundu-mailan errefuxiatuen giza eskubideak defendatuko dituen herritar konprometituak, parte-hartzaileak eta mobilizatzaileak lortzeko.

Giza eskubideen ikuspegia duen ikaskuntza-zerbitzurako irizpideak:

PERTSONA

Jakintzetan, emozioetan eta errealitatearen aurreko jarreretan oinarrituta.



IKASKUNTZA-HELBURUAK

Gizarte-konpromisoa bultzatzeko, pentsamendu kritikoa, autokonfiantza eta lankidetzaren oinarri hartuta.



ERAGIN SOZIALA

Ekintzak sortuz, errealitatea eta pertsonen potentziala ulertuta.



IKASKUNTZA-INGURUNEA

Aldaketak eragiten dituzten esperientzia dibertigarriak eta esanguratsuak sortzeko modu berriekin.



Komunitatearen Zerbitzurako Proiektuak

Komunitatearen Zerbitzurako Proiektuak ikasgaia funtsezko konpetentziak garatzean datza, komunitatearen zerbitzurako proiektuak eginez, autoestimua, autonomia, gogoeta eta erantzukizuna indartuz, bai eta balio zibikoak eta etikoak ere, eta, hala, nabarmen laguntzen du DBHn funtsezkoak eta nahitaezkoak diren hainbat konpetentzia garatzen ([77/2023 Dekretua](#), maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa (2023-06-09ko EHAA)).

Bereziki, modu esanguratsuan laguntzen du “Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia: elkarrekin bizitzen jakitea” konpetentzia zeharka garatzen; izan ere, gizartearekiko errespetuzko, lankidetzako eta konpromisozko jarrerak sustatzera bideratzen da konpetentzia hori, eta elementu horiek funtsezkoak dira bizikidetzaren harmonizazioa izan dadin ingurune sozial, askotariko eta plural batean. Gainera, komunitatearen zerbitzurako proiektuak eginez, ikasleek ezagutza akademikoak bereganatzeaz gain, pertsonen arteko trebetasunak ere garatzen dituzte, integrazioa, talde-lana eta elkarrekiko errespetua bultzatuz, eta gizarte inklusiboagoa eta solidarioagoa eraikitzea sustatuz.

Halaber, ikasgaiak disziplinarerako “Gizarte eta herritartasunerako konpetentzia: Gizarte Zientziak” oinarrizko konpetentzia ere indartzen du, ikasleei aukera ematen baitie modu praktikoan aplikatzeko gizarte-zientzien hainbat alorretan barneratutakoak, eta hala, ingurunean arazo errealek identifikatzeko eta haiei aurre egiteko. Ikasgaiak garatutako proiektuek gai sozial, politiko eta ekonomikoei buruzko hausnarketa kritikoa sustatzen dute. Horri esker, ikaskuntza aktiboa eta komunitateko arazoak konpontzeko konpromisoa bultzatzen dira, eta, horrela, prozesu sozialak eta egungo munduan dituzten inplikazioak hobeto ulertzea sustatzen da.

Horrela, Komunitatearen Zerbitzurako Proiektuak ikasgaia funtsezko zutabea da **herritartasunerako konpetentzia** garatzeko. Konpetentzia hori funtsezkoa ikasleen prestakuntza integrala lortzeko, bai eta ikasle horiek gai izan daitezen euskal gizarte justu, ekitatibo, solidario eta konprometitu baten eraikuntzan aktiboki parte hartzeko ere.

Ikasgaiaren izenaren aldaketa –“Balio Etikoak” izatetik “Komunitatearen Zerbitzurako Proiektuak” izatera– ez da izen-aldaketa hutsa izan: **ikuspegi praktikoagoa eta ekintzara bideratua** ere islatzen du. “Balio Etikoak” ikasgaiak bizikidetzaren eta herritartasunaren printzipioei buruzko ikuspegi teorikoagoa zuen; “Komunitatearen Zerbitzurako Proiektuak” ikasgaiak, berriz, ikasleak beren komunitatean eragina duten proiektuak egiten inplikatzeko du helburu, talde-lana, elkartasuna eta gizarte-erantzukizuna sustatuz.

Alde horretatik, ikasgai hori eraginkortasunez eta modu esanguratsuan gauatzeko proposatutako metodologia (**Ikaskuntza-Zerbitzua**) da LOMLOEk ezarritako helburuak lortzeko egokiena, zeharkako ikaskuntza akademikoa eta konpromiso soziala integratzen baititu. Betiere, hezkuntzaren benetako arrakasta gizartearen hobetzeko gai izango diren herritarrak prestatzea dela ulertuta, eta ez soilik norberaren curriculumak hobetzeko gai direnak. Gainera, haurrak eta gazteak beren ingurunean aldaketak eragiteko gai diren herritar gisa hartzen ditu, eta ez etorkizuneko aldaketa-eragile gisa.



© UNHCR / Oxygen Empire Media Production

Ikaskuntza-Zerbitzua

Ikaskuntza-Zerbitzua (IKZ) hezkuntza-metodologia, komunitateari zerbitzu bat ematen zaion bitartean gertatzen da ikaskuntza. Horri esker, ikastetxeek eta ikasleek edozein errealitate bertatik bertara ezagut dezakete, eta ingurunearekin aliantza positiboak egin ditzakete, hari zerbitzuak emateko.

IKZ metodologia eginez ikasteko ideian oinarritzen da, eta komunitateak berak, gizarte-erakundeek edo ikastetxearen barruko edo kanpoko kolektiboren batek planteatu dezakeen gizarte-behar bati lotutako ikas-egoera bat, erronka eragiten duena, diseinatzeko garatzen da.

Besteak beste, eragin positibo hauek direla-eta egiten du **ACNUR Euskal Batzordeak** metodologia honen aldeko apustua, GEHri dagokionez:

1

Funtsezko konpetentziak garatzea bultzatzen du, ezinbestekoak baitira XXI. mendeko erronkei eraginkortasunez erantzuteko.

2

Ekimen indibiduala eta ekintza kolektiboa bateratzeko aukera ematen du, bakoitzaren ahaleginak eta sormena talde antolatuaren indarrarekin eta eraginarekin konbinatuz.

3

Komunitate bateko kide sentitzea, hezkuntzaren praktika demokratikoa eta herritartasun konprometitua sustatzen du.

4

Ikasleen artean hausnarketarako eta ekintza kontzienterako guneak sortzen laguntzen du, eta protagonista da haren aldaketa-eragile rolean, lagundutako hezkuntza-praktiken bidez.

Gizarte-eraldaketarako komunikazio-kanpaina komunitarioak

Gida honetan deskribatutako prozesuetatik sortuko diren gizarte-eraldaketarako komunikazio-kanpaina komunitarioak Herritartasun Globalerako Hezkuntzaren eta Ikaskuntza-Zerbitzuaren arteko lotura dira. Ildo horretan, ikasleek balioak indartuko dituzte eta hainbat ezagutza eta trebetasun bereganatuko dituzte, eta haiek diseinatzeko eta abian jartzen parte hartuko dute. Bestalde, beren komunitate-inguruneetan aldaketa-eragile gisa duten rola aktibatuko dute, beren ekimenak inplementatuz.

Esan bezala, prozesuaren azken emaitza taldean zenbait kanpaina (ekintza-planak) garatzea da. Kanpaina horiek komunikazio-osagai sendoa izan beharko dute, eta gai jakin bati buruzko ezagutzetan edo/eta jarreretan eragiteko asmoa duten jardura batez edo gehiagor egon beharko dute osatuta. Taldeek berek zuzenean gara ditzakete, edo ingurune komunitateko beste pertsona eta erakunde batzuekin lankidetzan.

Herritartasun Globalerako Hezkuntzaren ikuspegitik, prozesu horiek parte-hartzaileak, ez-autoritarioak eta autonomiaren aldekoak izatearen alde egiten dugu. Printzipio horien arabera, lantaldeek berek ezarri beharko lituzkete beren kanpainen helburuak, sentsibilizaziotik hasi eta gizarte-mobilizazioa sustatzeraino. Lehenak, erreferentziatzat [➤ Espainiako Lankidetzaren Garatzeko Hezkuntza Estrategia](#) hartuta, egoera bati eta hura sortzen eta iraunarazten duten kausa eta egiturei buruz ohartarazten saiatzea du helburu, gorpil zoro hau hautsiz: ezjakintasuna - ezaxola - ezjakintasuna. Bigarrena —hau da, gizarte-mobilizazioa— bideratuago dago ekintzara. [➤ Mosaikok](#) honela definitzen du: justizia sozial handiagoan sakonduko duten eta gizarte-eredu nagusiaren ordezkioak eta harekiko kritikoak diren proposamenak sustatzera eta bultzatzera bideratutako ekintza kolektiboen prozesu parte-hartzailea.

Autonomia sustatzeaz gain, prozesu horietan funtsezkoak diren beste bi elementu ere nabarmendu behar ditugu. Horietako bat sormena da. Hiperkomunikazioak markatutako mundu honetan, edozein entzuleri mezu bat helaraztea gero eta konplexuagoa eta garestiagoa den garaian, ideia berriak, bai formatuari bai hizkuntzari dagokionez, elementu erabakigarria izan daitezke parte hartzen duten gazteek abian jarritako ekimenetan. Horregatik, irakasleen laguntzak, nahiz eta ezinbestekoa izan, ez du muga izan behar, baizik eta ikasleen amets egiteko eta imajinatze gaitasunaren akuilu.

Laguntza hori funtsezkoa da lehen aipatu dugun bigarren elementuan ere. Kasu honetan, **prozesua azken emaitza bezain garrantzitsua** dela dioen ideia da. Kontuan izan behar da kanpainak egitea ez dela lan erraza. Publizitatearen alorretik, bai eta sektore sozialetik ere, diru kantitate handiak eta lan-ordu espezializatuak inbertitzen dira, eta, nahiz eta baliabide ugari bideratu horretara, beti ez dute espero den arrakasta izaten. Gure ikasleen ekimenek izan dezaketen eragina gutxietsi gabe, jakitun izan behar dugu kanpaina horiek antolatzea eta garatzea bera ikaskuntza dela. Eta, bide horretan, gai sozial batetiko interesa bultzatzeaz gain, zer den benetan garrantzitsua: bizitzan zehar, zuzenean

edo entitate, erakunde, kolektibo edo mugimenduen parte izanda, abian jar ditzaketen errealitatea eraldatzeko ekimenetan eraginkortasunez inplikatzeko aukera emango dieten ezagutzak eta esperientzia eskuratzea. Izan ere, hala sustatuko dugu egiazko herritartasun aktiboa, gaur egungoa, baina, batez ere, etorkizuneko.

Komunikazio-kanpaina komunitarioak:

Zer dira?

Ikasleek beren ingurune errealitate bat aldatzeko sortutako komunikazioko eta gizarte-ekintzako proiektuak.

Zer lotzen dute?:

- Herritartasun globala + Ikaskuntza-Zerbitzua

Zertarako?

Ezaugarri hauek dituzten ikasle sozialki aktiboak sustatzeko:

- Kritikoki pentsatzen dute.
- Ondo komunikatzen dira.
- Beren komunitatean jarduten dute.

Zer helburu dute?

Sentsibilizatzea

- Arazo bat eta haren konponbideak ikusaraztea.

Mobilizatzea

- Ekintza kolektiboa bultzatzea.

Nola?

- Ikasleek erabakitzen dute.
- Taldean lan egiten da.
- Komunitatearekin lankidetzan aritzen da.
- Irakasleak lagundu egiten du.



Emaitza:

Kanpaina bat baino gehiago: Beren errealitatea eraldatzeko gai diren herritarrak.

Web tresnaren erabilera

KOMUNITATEAREN ZERBITZURAKO PROIEKTUAK LANTZEKO
GIDA PRAKTIKOA

Ikasgelako lana errazte aldera, irakasleei zuzendutako web plataforma hezitzaile bat diseinatu da, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren (GEH) ikuspegieta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) Komunitatearen Zerbitzurako Proiektuak ikasgaiaren curriculumean eta Ikaskuntza-Zerbitzua (IKZ) metodologian oinarritutako ibilbide didaktikoen bidez.

Webgunearen helburu nagusia da irakasleei laguntzea beren errealitate zehatzari egokitutako hezkuntza-baliabideak hautatzen (hezkuntza-maila, ikasle kopurua, saio kopurua, etab.), modu erraz, intuitibo eta azkarrean, eta, azken emaitza gisa, ibilbide bat eskaintzen du, PDF formatu deskargagarrian.

Hona hemen webgunearen egitura:

1

Lehenik eta behin, irakasleek hezkuntza-materialaren deskribapen laburra aurkituko dute. Horren ondoren, horri lotutako ibilbideak hautatzeko formulario bat ikusiko dute, gidatutako iragazki-sistema bat balitz bezala jokatu duena. Formulario hori nabigazio intuitiboa errazteko dago diseinaturik, bai eta baliabideak pertsonalizatzeko ere, ikasgelaren ezaugarri zehatzak kontuan hartuta.

JOAN WEBGUNERA



Webgunearen behealdean, informazio osagarria duten esteka erabilgarriak daude, hala nola komunitatearen zerbitzurako proiektuetarako gida praktikoa, eta hortik gidaliburu honetara edo harremanetarako atalera jo daiteke, zalantzak argitu edo kontsultak egin nahi izanez gero.



Formularioa aukera itxiak dituzten galdera sekuentzial sorta batean dago egituratuta, eta, horri esker, arindu egiten da hautaketa-prozesua. Irakasleak honako hauek adierazi beharko ditu:

- Taldearen hezkuntza-zikloa (DBHko 1. eta 2. mailak edo DBHko 3. eta 4. mailak).
- Taldearen tamaina (15 ikasle baino gutxiago, 15-25 ikasle, edo 25 baino gehiago)
- Zenbat denbora duen ibilbidea garatzeko, saio kopurutan adierazita.

Aukera bakoitzak automatikoki eguneratzen du iragazketa, eta, hala, azken proposamenak hautatutako irizpideekin koherenteak direla bermatzen da.

Ibilbideak hautatzeko formularioa:

The diagram illustrates a four-step process flow, likely for a user registration or onboarding process. The steps are numbered 1 through 4, each represented by a blue rounded rectangle with a white number in a dark blue circle at the top left. Step 1 is titled 'Hezkuntza zikloa?' (Education cycle?) and has two radio button options: 'DBH 1' (selected) and 'DBH 2'. Step 2 is titled 'Zenbat ikasle?' (How many students?) and has three radio button options: '15 baino gutxiago' (selected), '15 eta 25 artean', and '25 baino gehiago'. Step 3 is titled 'Zenbat saio?' (How many sessions?) and has three radio button options: 'saio 1' (selected), 'saio 3', and 'saio 6'. Below the radio buttons in step 3, there is a label 'Ikasleek sentsibilizatu nahi badituzte:' and a paragraph 'Gainera, ekintzara pasatzen lagundu nahi badituzte:' followed by two radio button options: '12 saio (den autonomia-eremuetatik kanpo)' and '20 saio (dena gertan lantzeko)'. Step 4 is titled 'Eskerrik asko!' (Thank you!) and contains a paragraph of text: 'Zalantzak argitu nahi badituzu edo zure ikasleek ikasgaien erabilera praktikatu nahi baduzu, zure iruzkaria xxxxxx@educar.org helbidena.' and 'Pezor bat izango du zure esperientziak eragutzea!'. At the bottom of step 4, there is a dark blue button with the text 'DESKARGATU' and a link 'BAI, ORATU' below it. Arrows indicate the flow from step 1 to 2, 2 to 3, and 3 to 4.

```
graph TD; 1[1. Hezkuntza zikloa?] --> 2[2. Zenbat ikasle?]; 2 --> 3[3. Zenbat saio?]; 3 --> 4[4. Eskerrik asko!];
```

1 Hezkuntza zikloa?

- ☒ DBH 1
- ☐ DBH 2

2 Zenbat ikasle?

- ☒ 15 baino gutxiago
- ☐ 15 eta 25 artean
- ☐ 25 baino gehiago

3 Zenbat saio?

Ikasleek sentsibilizatu nahi badituzte:

- ☒ saio 1
- ☐ saio 3
- ☐ saio 6

Gainera, ekintzara pasatzen lagundu nahi badituzte:

- ☐ 12 saio (den autonomia-eremuetatik kanpo)
- ☐ 20 saio (dena gertan lantzeko)

4 Eskerrik asko!

Zalantzak argitu nahi badituzu edo zure ikasleek ikasgaien erabilera praktikatu nahi baduzu, zure iruzkaria xxxxxx@educar.org helbidena.

Pezor bat izango du zure esperientziak eragutzea!

DESKARGATU

[BAI, ORATU](#)



Formularioa bete ondoren,
plataformak argi bereizitako bi
ekintza nagusi aurkezten ditu:

Hezkuntza-ibilbidea PDF formatuan
deskargatzeko botoi bat. PDF horrek
barnean hartuko ditu emandako
erantzunetara egokitutako jardueren
proposamenak, orientabide
pedagogikoak eta gomendio
metodologikoak.

Plataformaren erabilera-esperientzia
Otik 5era arteko eskala batean
baloratzeko aukera ematen duen
beste botoi bat. Funtzionalitate horren
helburua da irakasleen iritzia jasotzea
eta baliabidearen erabilgarritasuna
eta kalitatea etengabe hobetzen
laguntzea.

Ibilbide didaktikoak

KOMUNITATEAREN ZERBITZURAKO PROIEKTUAK LANTZEKO
GIDA PRAKTIKOA

Proposatutako ibilbide didaktikoen bide pedagogikoa Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren (GEH) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) Komunitatearen Zerbitzurako Proiektuak ikasgaiaren curriculumaren ikuspegiaren arabera diseinatu da.

ACNUR Euskal Batzordean uste dugu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza funtsezko etapa dela herritartasun kritikoa garatzeko, bai parte hartzeko, eraldatzeko eta denon arazoak konpontzeko gogoia duena garatzeko ere; hala, inguratzen duen errealitatea hobetuko baitu. Ikaskuntzarako eta zerbitzurako prozesuen arteko artikulazio egokia lortzea da gida honen helburuetako bat. Horren bidez, ibilbide bat eskaini nahi zaie irakasleei bi prozesu horietan laguntzeko, herritartasun aktiborako hezkuntza-proiektu bakar batetik abiatuta; proiektu hori errefuxiatuen, asilo-eskatzailen, migratzailen eta aberrigabeen bizi-kalitatea hobetzearekin lotuta dago, bai beren komunitateetan, bai munduan.

Hemen, 30 ibilbide eskaintzen dira, sentsibilizazioa landu, eta gizarte inklusiboak eta xenofobiarik gabeak eraikitza bideratutako proiektuetan parte hartzeko, bigarren hezkuntzako ikasleekin ikaskuntzako, zerbitzuko eta ebaluazioko bide pedagogikoak eginez. Horien helburua da kompetentzietan oinarritutako ikaskuntza-prozesua eskaintzea, “jakintzaren” eta “egiten jakitearen” arteko harreman zuzenagoa sustatzen duena; hau da, desberdintasun-, bidegabekeria- eta diskriminazio-egoerei eraginkortasunez aurre egiteko beharrezkoak diren ezagutzak, prozedurak eta jarrerak integratzeko gaitasuna sustatzen dute, ikuspegi kritiko eta gogoetatsu batetik, horien kausen eta ondorioen inguruan.

Zehazki, hau da hezkuntza-etapa bakoitzaren helburua:

IKASKUNTZA:

Ikasleek beren ingurune hurbileneko eta munduko errefuxiatuen bizitzei buruz dituzten emozioak eta ezagutzak identifikatzea, eta behartutako desplazamendu-prozesuen errealitateari buruzko ulermena areagotzea, genero ikuspegitik.

ZERBITZUA:

Gazteen parte-hartzearen bidez, narratiba xenofobikoak deseraikitze eta migrazio- eta asilo-narratiba berriak eraikitze komunikazio-kanpainen diseinuan eta garapenean laguntzea.

EBALUAZIOA:


Prestakuntza-ekintzaren beraren gogobetetzea edo balorazioa ebaluatzea; prestakuntza-prozesuan eta emaitzetan eskuratutako ezagutzak eta trebetasunak ikastea edo egiaztatzea, egindako gizarte-zerbitzuaren eragina zein den jakiteko.



©ACNUR / A. Tardly

Ibilbideak hainbat saio kopurutan banatzen dira (1, 3, 6, 12 eta 20 saio), planteatutako helburu didaktikoaren arabera: gaiari buruz **sentsibilizatzea** edo **Ikaskuntza-Zerbitzuko** prozesu praktiko bat garatzea. Prozesu hori ikasgelan egin daiteke osorik, edo taldekako lana konbinatuz, ikasgelatik kanpo eta ikasgela barruan.

Bi kasuetan, ibilbide pedagogikoa honako hau da:



Praktikan jartzeko orientabidea:

Jarraian, zenbait orientabide metodologiko aurkezten dira, proposatutako ibilbideak errazago ezartzeko. Iradokizun hauek malguak dira, eta talde bakoitzaren ezaugarri eta behar espezifikoetara egokitu behar dira, betiere hezkuntza-prozesuari eta ikasleen ongizateari lehentasuna emanez.

- **Malgutasuna aplikazioan:** Proposatutako jarduerak ez dira zurrinak; egokitu egin daitezke, eta egokitu egin beharko dira, taldearen testuinguruaren, heldutasun-mailaren eta dinamiken arabera.
- **Konpetentzien arabera ikaskuntza:** Ibilbideen plangintzan, saioetan funtsezko zer konpetentzia lantzen diren identifikatzen da. ➔ [HEMEN](#) kontsultatu daitezke.
- **Ikaskuntza kooperatiboa:** Taldeak ikuspegi horren arabera nola antolatu jakiteko, ➔ [“El programa CA/AC \(Cooperar para Aprender/Aprender a Cooperar\) para enseñar a aprender en equipo” liburua eskaintzen da, Vic-eko unibertsitateak egina](#). 32. orrialdean, zenbait irizpide eta estrategia metodologiko aurkezten dira.
- **Espazio seguruak:** Ingurune fisiko eta emozional abegikorak parte-hartzea, ongizatea eta talde kohesioa bultzatzen ditu. Hala, lan kooperatiboa lortzen da, ikasleen identitatea errespetatzen da, eta parte-hartze ekitatiboa bultzatzen.
- **Prozesua:** Saioak elkarrekin konektatutako jarduera gisa diseinatuta daude, eta aukera ematen dute etengabeko eta zentzuzko ikaskuntza-prozesu batean edukiak, metodologiak eta ikaskuntza-mailak antolatuko dituzten hezkuntza-sekuentzia koherenteak osatzeko.
- **Arreta emozionala:** Jarduera batzuek emozio biziak eragin ditzakete, zenbait esperientzia pertsonal edo soziofamiliarri lotuta. Funtsezkoa da taldeari eta pertsona bakoitzari laguntza emozionala ematea, enpatian eta zaintzan oinarrituta.
- **Amaiera gogoetatsua:** Saio bakoitza amaitzean, gogoeta kritikorako espazioak proposatzen dira, bizitakoa integratzeko, galderak egiteko eta pentsamendu kritikoa sustatzeko.
- **Ikasitakoa finkatzea:** Ikasleek koaderno bat izango dute egunero, prestakuntza-prozesuan eskuratutako ezagutzak finkatzeko (ikasitako kontzeptuen glosarioa, erantzuna eta saio bakoitzeko galdera ebaluatzaileak, besteak beste).
- **Elkarriketa inklusiboa:** Elkarriketa gogoetatsua, errespetuzkoa, arduratsua eta xedea duena ahalbidetzeko, hizketa-txandak banatzea eta elkar entzutea sustatzea iradokitzen da, pertsona guztien parte-hartzea ziurtatzeko.
- **Gazteen parte-hartzea sustatzea:** Aprobetxatu proposatutako jarduerak, metodoak eta edukiak nerabeen eta gazteen gizarte- eta politika-ekintzarako gaitasuna aitortzeko eta sustatzeko, eta egin eguneroko bizitzan gizarte-justiziaren aldeko konpromisoa erakusteko gonbita.



IKZ parte-hartzailerako gakoak:

Saio bakoitzeko teknikak eta metodologiak ikasleek komunitatearen zerbitzurako proiektuen diseinuan, garapenean eta ebaluazioan zeregin aktiboa eta protagonista izan dezaten diseinatuta daude. Horregatik, ordutegietan, espazioetan eta irizpide akademikoetan malguak izatea gomendatzen da, ikasleen motibazioa, lotura eta beste gizarte-eragile batzuekiko interakzioa errazte aldera, Ikaskuntza-Zerbitzuko proiektuak egiten diren bitartean.



Komunitatearen zerbitzurako proiektuak garatzeko ibilbide didaktikoen eskema:



Ikusizko eskema honek egitura ulertzen laguntzen du.

Ibilbide didaktikoen azala:

HELBURUA:

Ikasleengan sustatu nahi den sentsibilizazioko edo Ikaskuntza-Zerbitzuko hezkuntza-prozesuaren helburua deskribatzen da.

HEZKUNTZA-ETAPA:

Ibilbidea zer mailako ikasleei zuzenduta dagoen adierazten da.

IKASLEAK:

Gutxi gorabehera zenbat ikaslek parte hartzen duten adierazten da.

KONPETENTZIAK:

Ibilbidean landutako funtsezko konpetentziak zerrendatzen dira. ("+" ikonoa klikatuta, deskriptore operatiboa irakur daiteke).

AURKIBIDEA:

Prozesuko saioen sekuentzia deskribatzen da modu egituratuan.



SAIOAK:

Ibilbidearen saio kopurua adierazten da. Kopurua zein den, kolore bat izango du.



Ikusizko eskema honek egitura ulertzen laguntzen du.

Ibilbide didaktikoen fitxa:

IRAUPENA:

Jarduera garatzeko aurreikusitako denbora.

HEZKUNTZA-ASMOA:

Saioaren hezkuntza-helburuaren deskribapena, ibilbide pedagogikoaren etapa bakoitzari lotuta.

METODOLOGIA:

Saioan garatuko den jardueran erabiliko diren metodo nagusiak.

MATERIALA:

Jarduera garatzeko beharrezko baliabideak. ("+" ikonoa klikatuta, eranskinetara jo daiteke zuzenean).

EBALUAZIOA:

Ikasleek saioan ikasitakoa baloratzeko eta horri buruz gogoeta egiteko proposamen orokorra.

IRAUPENA

50 min gela.

1. SAIOA

ENPATIZATU

Ikaskuntza fasea

HEZKUNTZA-ASMOA

Nola baldintzatzen dute genero-erolek bizi-kaltatea eta nola eraldatu ditzakegu ikuspegi kritiko eta errespetuzko batetik?

Saio honen hezkuntza-asmoa ikasleengan pentsamendu kritiko eta enpatia sustatzea da, nahitaez desplazatutako pertsonen bizitza errealak aztertzea, arreta berezia jarri neskatei, nerabeei eta emakumei, generoaren eta giza eskubideen ikuspegitik.

METODOLOGIA

- Lan kolaboratiboa.
- Gogoeta-erabaketa.
- Erabaketa-taldea.
- Pentsamendu-errutina.

MATERIALA

- + 1. ERANSKINA: Eskubide ilustratuak.
- + 2. ERANSKINA: Historia duten argazkiak.
- + 3. ERANSKINA: Eskubide ilustratuak interpretatzeko ereduak.
- + 4. ERANSKINA: Giza eskubideak.
- Koloretako errotuladoreak edo margoak.

EBALUAZIOA

Jarduera amaitzean, ikasleek honako galdera honi buruz bakarka hausnartzera animatuko ditugu: **Zer galdara sortzen zaitzaki saio honen ondoren?** Eta beren gogoei taldean azaltzea ere animatuko ditugu.

JARDUERAREN GARAPENA

HASIERA

1. Jarduerari ekiteko, 2-3 lantalde osatzen dira, honako jarraibide hauen arabera: [talde kooperatiboa osatzeko](#).

GARAPENA

2. Talde bakoitzari txartel ilustratu bat ematen zaio (1. ERANSKINA), eta minutu batez txartelaren edukiriaren inguruko, burua isten zaitzen estimulu edo ezagutza guztiak banaka idazteko eskatzen zaie (arazapenak, emozioak, egoerak, bizipenak, kontzeptuak, etab.). Lanari ekin aurretik, adibide bat jar daiteke pentsamendu sortzaileari laguntzeko. Adibidea: "bakea" kontzeptuak honako ideia hauek ateratzen dira: "lasaitasuna, uso zuria, guztiztatuta, ilusioa..."
3. Sortutako ideia guztiak banan-banan idatzi ondoren, talde bakoitzari irudi bakoitzari lotutako argazkia (2. ERANSKINA) eta eskubide ilustratuak interpretatzeko ereduak (3. ERANSKINA) banatuko zaizkio, honako hauek identifikatzeko:
 - Argazki bakoitzari lotutako bizitzaren testigantza gaitz gaitz.
 - Mozambiken desplazatutako/itxuratuak neskak, nerabe eta emakumeen errealitatearen urrutitako giza eskubideak.
 - Eta eskubideen errealitateak (Berdintasuna / Bizitza duina / Erresistentzia / Babesa).
4. Talde-lanera, giza eskubideen zerrenda bat banatzen da taldeen artean (4. ERANSKINA) eta "sexualitatea eta genero-indarkeria" kontzeptuari buruzko azalpen labur bat egin daiteke: ["Prevención y respuesta ante la violencia sexual"](#) bideoarekin. Bideo horiek sexualitatea eta genero-indarkeria giza eskubideen urrutitako giza azalpenak ditu, bai eta ACNURek nola lantzen duen ere.

BUKAERA

5. Talde-lana amaitu ondoren, talde-erakusketak bat egingo da, eta ikasleek beren ondorioak eta Mozambikako neskatei, nerabeei eta emakumeen eskubideen irudikapen bisualak aurkeztu ahal izango dituzte.
6. Landutako edukiri buruzko hausnarketa-txikier bat emateko, honako galdera hauek egin ahal dira:
 - Zer giza eskubide dira premiazkoenak Mozambiken neskatei, nerabeei eta emakumeek babesteko, bizi dituzten egoerak kontuan hartuta?
 - Bizitza zailtzen duen, zer laguntza behar du bereziki neskek, nerabeei eta emakumeek duintasun bizi ahal izateko?
 - Mozambiken eta munduko beste leku batzuetan edo gure herrian neskek, nerabeei eta emakumeek bizi dituzten errealitateen eta egoeren artean paralelismoak aurkitzen al dituzte?

HAUSNARKETARAKO ORIENTABIDEAK

Txartel ilustratuaren edukiri esker, parte-hartzaileek erraz has daitezke haien eguneroko bizieratik eta testuinguritik urrun dauden gai konplexuak lantzen.

Aztertutako istorioen analisian azalpena modu erakargarrian gidatzea iradokitzen da, Mozambikako neskatei, nerabeei eta emakumeen egoera/arrisku nagusien sakontasunak aukera eman dezan, ikasleek jakintza, kezka eta hipotesiak sortzeko.

Amariako hausnarketa gidatzaile aukera emango du aztertutako errealitateak ikasleek ezagutzetik abiatuta aztertzea, eta giza eskubideak babestearen garrantzia aldarrikatzeko, Mozambikako testuinguruaren neskek, nerabeei eta emakumeek dituzten erronkak ulertuta.

Ikasleek interesgarritzat jotzen badute, material osagarria erabil dezakete [EACNURren artikulua](#) hau irakurtu landutako irudien testuingururako.

GOGOETARAKO ORIENTABIDEAK:

Saio bakoitza praktikan jartzen laguntzeko eta aberasteko jarraibideak.

JARDUELA EGITEA:

Saioa garatzeko jarraibide didaktikoak.

NABIGAZIO ERRAZA ETA INTUITIBOA:

"+" ikonoa duen botoia zuzenean atzipena da: saioa fitxetan, hari lotutako eranskinetara darama, eta, eranskin bakoitzetik, dagokion fitxara itzultzeko aukera ematen du, berriro "+" sakatuz gero. Horri esker, erabilera-esperientzia errazagoa da.

IKASKUNTZA-ZERBITZURAKO GIDA

17

Kontzeptuak argi

KOMUNITATEAREN ZERBITZURAKO PROIEKTUAK LANTZEKO
GIDA PRAKTIKOA

Jarraian, glosario bat aurkezten dizugu, gida osatzen duten jardueretan lantzen diren kontzeptu laburrekin:

- **Giza eskubideak:** Pertsona orok gizaki izate hutsagatik dituen oinarritzko bermeak, guztiontzako bizitza duin eta osoa ziurtatzea helburu dutenak. Horiei buruzko informazio zehatza eta fidagarria aurki daiteke Giza Eskubideen Nazio Batuen Goi Mandatariaren Bulegoan (OHCHR): [ohchr.org](https://www.ohchr.org)
- **Giza krisia:** Blokeoak, behin eta berriz errepikatzen diren gatazkek eta baliabiderik ezak krisi kronikoa eragin dute, eta krisi horren ezaugarria da edateko uraren, elikagaien, sendagaien eta elektrizitatearen eskasia.
- **Behartutako desplazamendua:** Pertsonak lekuz aldatzeko mugimenduak. Mugimendu horietan hertsapena antzematen da, bai eta mehatxuak ere, bizitzaren aurka eta bizirik iraun ahal izateko, nola arrazoi naturalak hala giza arrazoiak direla eta.²
- **Errefuxiatuak:** "Arrazagatik, erlijioagatik, nazionalitateagatik, gizarte-talde jakin bateko kide izateagatik edo iritzi politikoengatik jazarria izateko beldur funtsatua dela-eta, bere nazionalitateari dagokion herrialdetik kanpo dagoen pertsona, eta, beldur hori dela-eta, herrialde horren babesari heldu ezin diona edo heldu nahi ez diona".³
- **Elikadura-segurtasunik eza:** Biztanleriaren zati handi bat laguntza humanitarioaren mende dago bizirik irauteko, blokeoak eta gatazka armatuak murriztu egin baitute oinarritzko elikagaiak eta edateko ura eskuratzeko aukera.
- **Jazarpena:** Pertsona edo talde baten aurkako indarkeria, mehatxuak, diskriminazioa eta eskubide-urraketa larriak eragiten dituen ekintzen multzoa, horien bizitza, askatasuna edo duintasuna arriskuan jartzeraino, besteak beste, jatorria, erlijioa, generoa, identitatea, iritzi politikoak edo gizarte-talde jakin bateko kide izatea dela-eta.
- **Aberrigabezia:** Egoera horretan, ezin estatuk ez du pertsona bat tokikotzat hartzen. Horrek legezko babesik eza sortzen du, eta zaildu egiten du oinarritzko eskubideak eskuratzeko, hala nola hezkuntza, osasuna edo gizarte-partaidetza.
- **Barne-desplazamendua:** Gatazka armatuen, indarkeriaren, giza eskubideen urraketen edo hondamendi naturalen ondorioz beren etxea edo ohiko bizilekua utzi behar duten pertsonen mugimendua, nazioarteko muga bat zeharkatu gabe eta beren herrialdearen barruan geratuta.
- **Genero-indarkeria:** Generoa dela eta jasaten dituzten hainbat indarkeria mota, blokeoak, gatazka armatuak, giza krisiak eta arau soziokultural murriztaileek larriagotuak. Hona hemen horietako batzuk:
 - **Etxeko indarkeria:** Emakume askok etxean egin behar izaten diete aurre txar fisikoei, psikologikoei eta sexualei, eta ez dute salatzeke edo babesteko mekanismo eraginkorrik.
 - **Egiturazko indarkeria:** Blokeoak eta gerrak bizi-baldintza oso prekarioak eragiten dituzte, emakumeei osasunerako, hezkuntzarako eta enplegurako sarbidea mugatuz, eta horrek zaurgarriago egiten ditu mendetasun ekonomikoaren eta bazterkeriaren aurrean.
 - **Haurren ezkontza eta ezkontza behartua:** Muturreko pobrezia eta arau tradizionalak, besteak beste, neska asko ezkontzera bultzatzen ditu adin txikietan, eta horrek haien garapena mugatzen du eta indarkeria-arriskua handitzen.
 - **Indarkeria gatazkan:** Indarkeriak gora egiten duenean, emakumeak behartutako desplazamenduen, abusuen, sexu-erasoen eta gerraren ondoriozko traumen biktima dira.
 - **Kontrol soziala:** Ingurune kontserbadoreetan, arau sozialei aurre egiten dieten emakumeak zigorak jasan ditzakete, eta horrek haien autonomiari eta parte hartzeko eskubideari eragiten dio.

2. Migrazioetarako Nazioarteko Erakundea (IOM), Migrazioari buruzko glosarioa, 34. zk., hemen eskuragarri: <https://publications.iom.int/system/files/pdf/iml-34-glossary-es.pdf> [2023ko martxoaren 20a]

3. Nazioarteko babesa, asilo-eskubide ere esaten zaiona, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren (1948) 14. artikulua aitortzen du. Artikulu horrek ezartzen du pertsona orok duela edozein herrialdetan asiloa bilatzeko eta asiloaz gozatzeko eskubidea, jazarpen-kasuetan.





Ikaskuntza-Zerbitzuari buruz:

- Red Española de Aprendizaje-Servicio: <https://aprendizajeservicio.net/>
- Roser Batlle. Aprendizaje-Servicio: <https://roserbatlle.net/aprendizaje-servicio/>
- Zerbikas (Euskadi): www.zerbikas.es
- Grup promotor d'aprenentatge servei de la Comunitat Valenciana: <https://apscomunitatvalenciana.com/>
- Centre Promotor d'Aprenentatge Servei (Katalunia): www.aprenentateservei.org

Behartutako dezplazamenduei buruz:

- ACNUR: www.acnur.org
- Las palabras importan (Enseñar sobre las personas refugiadas - ACNUR): <https://www.acnur.org/es-es/que-hacemos/proteccion/educacion/ensenar-sobre-las-personas-refugiadas>
- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala: <https://www.ohchr.org/en/human-rights/universal-declaration/translations/basque-euskara>
- Garapen Jasangarrirako Helburuak: un.org/sustainabledevelopment/es/objetivos-de-desarrollo-sostenible/
- EACNUR hezkuntza-baliabideak: <https://eacnur.org/es/recursos-educativos-acnur>
- SOM REFUGI: <https://somrefugi.org>

ACNUR Euskal Batzordeak DBHrako dituen tresna didaktikoak:

- ☒ “Zu naiz, ni zara” baliabide interaktiboa: https://soutuafrica.eacnur.org/site_eusk/
- ☒ Teaching About Refugees bideoa: <https://www.youtube.com/watch?v=jpWZAdlMXz0&t=2s>
- ☒ “KED mapa” baliabide interaktiboa: https://mapardc.eacnur.org/site_eusk/
- ☒ “Yo me llamo Brisa, ¿y tú?” baliabide interaktiboa: <https://eacnur.org/es/yo-me-llamo-brisa>
- ☒ “La huida de Amani” baliabide interaktiboa: <https://transformaraulas.com/site/>
- ☒ “Pasapalabra” baliabide interaktiboa: <https://view.genially.com/5f606afd79626a0d71282e30/game-pasapalabra>
- ☒ “Las palabras importan” baliabide didaktikoak: <https://eacnur.org/es/las-palabras-importan>



Gida honetako irudien zerrenda:

- **Azala:** Nahitaez desplazatutako emakumeak dantzatzen sexu-indarkeriaren aurkako babes-zentroaren aurrean, barne-desplazatuentzako babeslekuan. Mozambike, 2024.
- **2. orrialdea:** Cabo Delgadotik bigarren aldiz desplazatutako familia, barne-desplazatuentzako igarobideko babeslekuan. Lianda, Mozambike, 2024.
- **4. orrialdea:** 72 urteko Hermelinda Longa, lehen aberrigabea zena, kokoak biltzen Santa Feko patioan, Darienen, bere nortasun agiria jaso ondoren. Panama, 2024.
- **5. orrialdea:** Ancila, Burundiko errefuxiatua eta Cabo Delgadoko psikologoa, ACNUReko langileekin batera, sexu esplotazioaren eta abusuaren prebentzioari buruzko kartel bat berrikusten, 2025ean Mozambiken genero-indarkeriari buruzko sentsibilizazio jarduerak baterako.
- **6. orrialdea:** Irakasle errefuxiatu batek haur errefuxiatuentzako eta baita tokikoentzako errefortzu-klaseak ematen, Erbileko Kobane eskolan. Irak, 2025.
- **8. orrialdea:** Afganistanera itzultako haurrak Encashment Centre bateko haurrentzako gunean jolasten. Bertan, familiek laguntza ekonomikoa, aholkularitza juridikoa eta arreta mediko eta psikosoziala jasotzen dute, besteak beste. 2025.
- **12. orrialdea:** Murielle, 26 urtekoa, DAFI Women Power Clubeko kidea eta Osasun Publikoan graduatua, Bujumburako Université Lumièreko campusean. Burundi, 2024.
- **14. orrialdea:** Mocimboa da Praian (Mozambike) jardunaldia amaitzean, ikasleak eskolatik ateratzen. Bertan, bizitza poliki-poliki suspertzen hasi da zerbitzu batzuk berrezartzearekin batera, baita eskolak ere. 2024.
- **19. orrialdea:** Ana, Palmatik (Cabo Delgado) nahitaez desplazatua, bere etxera itzuli da 2021eko martxoko erasoetatik urte bat baino gehiago igaro ondoren. "Laguntza behar dugu erasoen aurretik genuena berreskuratzeko".
- **21. orrialdea:** Dorotea, 35 urteko errefuxiatu burundarra eta zazpi seme-alabaren ama, etxera itzultzen bere patatasorua ureztatu ondoren, Marataneke (Mozambike) errefuxiatuen babeslekutik gertu, Gombe zikloiak bere etxebizitza eta uzta suntsitu ondoren.
- **26. orrialdea:** Ancila, Burundiko errefuxiatua eta Cabo Delgadoko psikologoa, ekitaldi ofizial batean hitz egiten, eskualdeko emakume errefuxiatuen izenean. Mozambike, 2024.



Landutako funtsezko konpetentziak

KOMUNITATEAREN ZERBITZURAKO PROIEKTUAK LANTZEKO
GIDA PRAKTIKOA

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) ikasleek proposatutako ibilbide didaktikoetan funtsezko zer kompetentzia garatuko dituzten azalduko dugu jarraian. Ibilbide horiek kompetentzia horietako bat edo hainbat garatzen laguntzen dute, eta, hala, ikasle guztien prestakuntza integrala eta ekitatiboa sustatzen da.

77/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.



FUNTSEZKO KONPETENTZIAK	IRTEERA-PROFILAREN DESKRIPTOREAK
HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA (HKK) Esan nahi du ahoz, idatziz, siglen bidez edo era multimodalean modu koherente eta egokian jardun behar dela hainbat esparru eta testuingurutan eta hainbat komunikazio-helbururekin. Ezagutza, trebetasun eta jarrera guztiak modu kontzientean mobilizatzea eskatzen du, ahozko mezuak, zeinuak, idatzia, ikus-entzunezkoak edo multimodalak ulertzeko, interpretatzeko eta kritikoki baloratzeko aukera ematen dutenak, manipulazioaren eta desinformazioaren arriskuak saihestuz, bai eta beste pertsona batzuekin modu kooperatiboan, sortzailean, etikoan eta errespetuzkoan eraginkortasunez komunikatzea ere.	HKK1. Euskaraz eta gaztelaniaz ahoz, idatziz eta era multimodalean edo siglen bidez hitz egiten du, koherentzia, zuzentasunez eta gizarte-testuinguruekiko egokitasunez, eta elkarrekintza komunikatiboetan parte hartzen du, lankidetzan eta errespetuz, informazioa trukatzeko eta ezagutza sortzeko, bai eta lotura pertsonalak eraikitzeko ere. HKK2. Pertsona-, gizarte-, hezkuntza- eta lanbide-arloetako ahozko, idatzizko eta multimodalezko edo zeinuzko testuak euskaraz zein gaztelaniaz, ulertzen, interpretatzen eta baloratzen ditu jarrera kritikoz, hainbat testuingurutan modu aktiboan eta informatuan parte hartzeko eta ezagutza eraikitzeko. HKK3. Hainbat iturritatik datorren informazioa, euskaraz eta gaztelaniaz, gero eta modu autonomoagoan aurkitu, hautatu eta kontrastatzen du, haren fidagarritasuna eta egokitasuna ebaluatuz, irakurketa-helburuen arabera, eta manipulatzeko eta desinformatzeko arriskuak saihestuz; informazioa integratu eta ezagutza bihurtzen du, komunikatzeko, ikuspegi sortzaile, kritiko eta pertsonala hartuz, jabetza intelektuala errespetatzearekin batera. HKK4. Autonomiaz irakurtzen ditu bere adinerako egokiak diren hainbat lan euskaraz eta gaztelaniaz, bere gustu eta interesetara hobekien egokitzen direnak hautatuz; ondare literarioa esperientzia indibidual eta kolektiboaren bide pribilegiatutzat hartzen du; eta bere esperientzia biografikoa eta ezagutza literario eta kulturalak mugiarazten ditu, obren interpretazioa eraikitzeko eta partekatzeko eta gero eta konplexuagoak diren asmo literarioko testuak sortzeko. HKK5. Bere komunikazio-praktikak elkarbizitza demokratikoaren, gatazkak elkarriketaren bidez konpontzearen eta pertsona guztien eskubide-berdintasunaren zerbitzura jartzen ditu, hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak baztertuz, bai eta hizkuntzaren bidezko botere-gehiegikeriak ere, hizkuntzaren erabilera eraginkorra eta etikoa ere bultzatzeko eta euskararen ohiko erabilereko jarrera asertiboa izateko.
KONPETENTZIA ELEANIZTUNA (KE) Hainbat hizkuntza erabiltzea modu egokian ikasteko eta komunikatzeko, hizkuntza- eta kultura-aniztasuna balioesteko, hizkuntzen artean bitartekari-estrategiak garatzeko, eta bizikidetzak demokratikoa sustatzeko.	KE1. Hizkuntza bat edo gehiago modu eraginkorrean erabiltzen ditu, familiako hizkuntzaz edo hizkuntzez gain, bere komunikazio-premiei behar bezala eta egoki erantzuteko, bai bere garapen eta interesetara dagokienez, bai eremu pertsonaleko, sozialeko, hezkuntzako eta profesionaleko egoera eta testuinguruei dagokienez. KE2. Bere esperientzietatik abiatuta, bere ikaskuntza-prozesuei buruz hausnartzen du, eta beste hizkuntza eta ikasgai batzuetan eskuratutako ezagutzak eta komunikazioa transferitzeko estrategiak erabiltzen ditu, eta konfiantzazko jarrera erakusten du komunikatzeko gaitasuna hobetzeko ikasteko duen konpetentzian. KE3. Ikastetxearen eta ingurunearen hizkuntza-aniztasuna onartzen du, aniztasun horrekiko errespetuzko eta enpatiazko jarrera erakusten du, eta hizkuntzak komunikabide eraginkortzat, kultura-ondaretzat eta gizarte-kohesioa sustatzeko tresnatzat hartzen ditu.

MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA ETA ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA INGENIARITZARAKO KONPETENTZIA (STEM)

Matematikarako konpetentziak eta zientzia, teknologia eta ingeniartzarako konpetentziak (STEM) mundua ulertzeko eta interpretatzeko gaitasuna dakar berekin, pentsamendu matematikoa, metodo zientifikoa eta teknologiararen eta ingeniartzaren ezagutzen aplikazio praktikoa erabiliz. Konpetentzia honek hainbat testuingurutan problemak ebaztea, galderak egitea, behatzea, esperimentatzea eta probetan oinarritutako ondorioak ateratzea ahalbidetzen du. Era berean, zientziaren eta teknologiararen erabilera arduratsua eta iraunkorra sustatzen du ingurunea eraldatu ahal izateko, pertsonetako eta planetarekiko konpromisoz jokatzeko.

STEM1. Arrazoiketa matematikoaren berezko metodo induktibo, deduktibo eta logiko batzuk erabiltzen ditu, baita metodo zientifikoen arrazoiketa hipotetiko-deduktiboa ere egoera ezagunetan, eta problemak ebazteko hainbat estrategia hautatu eta erabiltzen ditu, jarraitutako soluzioak eta prozesua kritikoki aztertuz eta prozedura birformulatuz, beharrezkoa izanez gero.

STEM2. Pentsamendu zientifikoa erabiltzen du bere inguruan gertatzen diren sistema natural eta materialei buruzko prozesu eta gertaera batzuk ulertzeko eta azaltzeko, ezagutza konfiantza bereganatuz garapenaren motor gisa, galderak planteatuz, eta hipotesiak egiaztatuz esperimentazioaren eta ikerketaren bidez, tresna eta tresna egokiak erabiliz, zehaztasunaren eta egiazkotasunaren garrantzia balioetsiz, eta eredu zientifikoarekiko ondorio esanguratsu eta koherenteren bat lortuz, zientziaren irismenari eta mugei buruzko jarrera kritikoa erakutsiz.

STEM3. Proiektuak planteatzen eta garatzen ditu, eta, horretarako, hainbat prototipo edo eredu diseinatu, fabrikatu eta ebaluatzen ditu, premia edo arazo bati modu sortzailean eta kooperatiboan irtenbidea emango dioten produktuak sortzeko eta/edo erabiltzeko, talde osoaren parte-hartzea saiatuz, sor daitezkeen gatazkak modu baketsuan konponduz, ziurgabetasunaren aurrean egokituz eta iraunkortasunaren garrantzia baloratuz.

STEM4. Prozesu, arrazoiketa, erakustaldi, metodo eta emaitza zientifiko, matematiko eta teknologikoen elementu garrantzitsuenak argi eta zehatz interpretatzen eta transmititzen ditu, hainbat formatutan (grafikoak, taulak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak...) eta kultura digitala modu kritikoan aprobetxatzen du, hizkuntza matematiko-formala barne, etika eta erantzukizunez, ezagutza berriak partekatzeko eta eraikitzeko.

STEM5. Osasun fisikoa eta mentala eta ingurumena babesteko zientifikoki oinarritutako ekintzei ekiten die, eta etika- eta segurtasun-printzipioak aplikatzen ditu ingurune hurbila modu jasangarrian eraldatzeko proiektuak egitean, haren eragin globala baloratuz eta kontsumo arduratsua praktikatzeko.

STEM6. Modu kritikoan justifikatzen du ikerketa zientifikoaren beharra eta horren aplikazioak eta aurrerapen zientifiko-teknologikoak gizartearen ongizatean, hainbat egoera problematikoren aurrean erabaki arrazoituak hartzeko gizarte modernoaren garapenean izan duten zeregina ezagututa.

KONPETENTZIA DIGITALA (KD)

Ikaskuntzarako, lanerako eta gizartearen parte hartzeko teknologia digitalen erabilera kritikoa, segurua, osasungarria, iraunkorra, sortzailea eta arduratsua eskatzen du, bai eta horiekin elkarreragitea ere. Honako hauek hartzen ditu barnean: informazioaren eta datuetan alfabetatzea, komunikazioa eta lankidetzak, alfabetatze mediatikoa, eduki digitalen sorrera, segurtasuna, eta herritartasun digitalarekin, pribatutasunarekin, jabetza intelektualarekin, arazoen ebazpenarekin, eta pentsamendu konputazional eta kritikoarekin lotutako gaiak.

KD1. Interneten bilaketa aurreratuak egiten ditu (bilaketa-terminoen, formatuaren, gaurkotatasunaren eta lizentziaren arabera), baliozkotasun-, kalitate-, gaurkotasun- eta fidagarritasun-irizpideak kontuan hartuta, informazioa modu kritikoan hautatu eta ulertzen du, modu esanguratsuan konbinatuz, eta modu ordenatuan artxibatuz, berreskuratuz eta erreferentzia egiteko, jabetza intelektualaren errespetatuz.

KD2. Etengabeko ikaskuntzako bere ingurune pertsonal digitala kudeatzen eta erabiltzen du jatorrizko ezagutza eta eduki digitalak hainbat formatutan ekoizteko eta gordetzeko, atazaren edo beharren arabera dagozkion tresna digitalak erabilia, bai dauden edukiak berrerabilia, bai sortutako edukiei lizentziei buruzko ezagutza aplikatuta.

KD3. Sare sozialen edo lineako komunitateen gisako tresnen eta/edo plataformen bidez parte hartzen, laguntzen eta elkarreragiten du, komunikatzeko, lankidetzan lan egiteko eta edukiak, datuak eta informazioa partekatzeko; horretarako, bere helburura ondoen egokitzen dena aukeratzen du, bere ekintzak, presentzia eta ikusgarritasuna modu arduratsuan kudeatzen ditu sarean, eta herritartasun digital aktibo, zibiko eta gogoetatsua gauzatzen du.

KD4. Gailu digitalak babesten ditu, segurtasun-estrategiak eguneratzen ditu, haien pribatutasuna eta besteena ulertzen eta babesten ditu oro har, eta oinarritzko ezagutza du haien datuak biltzeko eta erabiltzeko moduari buruz, badaki bere burua eta beste batzuk ziberjazarpenetik babesten, eta ulertzen ditu teknologien erabilerrari lotutako osasun-arriskuak (ergonomia, adikzioak), eta ulertzen du teknologiak ingurumen-jasangarritasunean duen eragin positiboa eta negatiboa.

KD5. Ea identifikatzen dituen arazo teknikoak eta gabeziak baliabideen erabilerrari, tresnei eta bere konpetentzia digitalen garapenari dagokienez, eta soluzioak ematen dizkien; ea garatzen dituen informatika-aplikazio errazak eta arazo zehatzak konpontzeko edo proposatutako erronkei erantzuteko irtenbide teknologiko sortzaile eta iraunkorrak; ea interesik agertzen duen eta ulertzen dituen teknologia digitalen bilakaeraren, haien garapen sozial iraunkorraren eta erabilera etikoaren azpiko printzipio orokorrak eta logika.

KONPETENTZIA PERTSONALA, SOZIALA ETA IKASTEN IKASTEKO (KPSII)

Berekin dakar nork bere burua ezagutu, onartu eta garatzeko gaitasuna, denbora, informazioa eta bizitza osoko ikaskuntza eraginkortasunez kudeatuz. Barnean hartzen ditu modu eraikitzailean lankidetzan aritzeko, aldaketetara egokitzeko, ziurgabetasunari aurre egiteko eta erresilientziari eusteko trebetasunak. Emozioen kudeaketa, norberaren eta besteen ongizatea zaintzea, enpatia, gatazkak konpontzea eta bizikidetzaren positiboa laguntzea ere hartzen du barne, era askotako testuinguru aldakorretan.

KPSII1. Bere emozioak erregulatzen eta adierazten ditu, eta, horretarako, baikortasuna, erresilientzia, autoeraginkortasuna eta ikasteko asmoa eta motibazioa bilatzen ditu, edozein testuingurutan sortzen diren erronkak eta aldaketak modu konstruktiboan kudeatuz eta bere helburuekin harmonizatuz.

KPSII2. Faktore sozialekin lotutako osasunerako arriskuak ezagutzen ditu, maila fisikoan eta mentalean bizi-ohitura osasungarriak finkatzeko, eta ikaskuntza sustatzen eta oztopatzen duten baldintza pertsonalak eta inguruneak identifikatzen ditu.

KPSII3. Besteen ikuspegiak eta esperientziak modu proaktiboan ulertzen ditu, eta ikaskuntzan txertatzen ditu, talde-lanean parte hartzeko, zereginak eta erantzukizunak modu ekitatiboan banatuz eta onartuz eta estrategia kooperatiboak erabiliz.

KPSII4. Bere ikaskuntza-prozesuari buruzko autoebaluazioak egiten ditu, informazioa baliozkotzeko, sostengatzeko eta kontrastatzeko eta ondorio garrantzitsuak ateratzeko iturri fidagarriak bilatuz.

KPSII5. Epe ertainerako helburuak planifikatzen ditu eta atzeraelkadurako prozesu meta-kognitiboak garatzen ditu, ezagutza eraikitze prozesuan dituen akatsetatik ikasteko.

HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIA (HK)

Lagungarria da ikasleek herritartasun arduratsua izan dezaten, bai eta bizitza sozial, zibiko eta demokratikoan modu aktibo eta kritikoan parte har dezaten ere. Egitura sozial, politiko, ekonomiko eta juridikoan ezagutzen oinarritzen da, bai eta mundu-mailako erronken ulermenean, giza eskubideekiko errespetuan, jasangarritasunean eta balio demokratikoetan ere. Alfabetatze zibikoa, justizia sozialekiko konpromisoa eta 2030 Agendako Garapen Jasangarriko Helburuekin bat datorren bizimoduaren garapena sustatzen ditu.

HK1. Bere nortasunaren dimentsio sozialari eta herritarrari buruzko ideiak aztertzen eta ulertzen ditu, bai eta identitatea zehazten duten gertaera sozial, historiko eta arauemalerei buruzkoak ere, eta arauak, enpatia, ekitatea eta espiritu konstruktiboa errespetatzen ditu besteei elkarrengainean, hainbat testuinguru sozioinstituzionalean.

HK2. Europako integrazio-prozesutik, Euskadiko Autonomia Estatututik eta giza eta haurren eskubideetatik datozen printzipioak eta balioak aztertzen eta onartzen ditu, eta, horretarako, Erkidegoko jardueretan parte hartzen du, hala nola erabakiak hartzean edo gatazkak konpontzean, jarrera demokratikoarekin, aniztasunarekiko errespetuarekin eta genero-berdintasunarekiko, gizarte-kohesioarekiko, garapen jasangarriarekiko eta munduko herritartasuna lortzearekiko konpromisoarekin.

HK3. Funtsezko eta gaurkotasuneko arazo etikoak ulertzen eta aztertzen ditu, norberaren eta besteen balioak kritikoki kontuan hartuz, eta bere iritziak garatuz, eztabaida moralari aurre egiteko elkarriketarako, argudiatzeko, errespetuzko eta edozein diskriminazio edo indarkeriaren aurkako jarreraz.

HK4. Jarduera lokal eta globalen arteko interdependentsia, ekodependentsia eta interkonexioko harreman sistemoak barne hartzen ditu, eta modu kontzientean eta motibatuan hartzen du bizimodu iraunkorra eta ekosozialki arduratsua.

EKINTZAILTZA-KONPETENTZIA (EK)

Aukerak identifikatzeko, ideiak sortzeko, eta balio sozial, kultural edo ekonomikoko ekintza bihurtzeko gaitasuna eskatzen du. Sormena, pentsamendu kritiko eta estrategikoa, etengabeko ikaskuntzarako jarrera, erabaki informatuak hartzea, eta arriskatzeko eta ziurgabetasunari aurre egiteko gaitasuna garatzen ditu. Horrez gain, lankidetzaren eraginkortasuna, komunikazioa, enpatia eta plangintza sustatzen ditu, ingurune benetako beharrei erantzuneko dieten proiektu jasangarriak gauzatzeko.

EK1. Beharrak eta aukerak aztertzen ditu, eta erronkei zentzu kritikoarekin aurre egiten die, iraunkortasunaren balantzea eginez, ingurunean izan dezaketen eragina baloratuz, ideia eta irtenbide berritzaileak, etikoak eta iraunkorrak aurkezteko, eremu pertsonalean, sozialean, kulturean eta ekonomikoan balioa sortzera bideratuta.

EK2. Norberaren indarguneak eta ahuleziak ebaluatzen ditu, autoezagutzako eta autoeraginkortasuneko estrategiak erabiliz, eta ekonomiararen eta finantzen funtsezko elementuak ulertzen ditu, ekonomia- eta finantza-ezagutzak aplikatzen dizkie jarduerari eta egoera zehatzei, eta lankidetzaren eta talde-lana erraztuko duten trebetasunak erabiltzen ditu, ekintzaren esperientzia ekintzaile baliotsua eramango duten beharrezko baliabideak biltzeko eta optimizatzeko.

EK3. Ideia eta konponbide baliotsuak sortzeko prozesua garatzen du, eta erabakiak hartzen ditu, modu arrazoituan, planifikatzeko eta kudeatzeko estrategia arinak erabiliz. Egindako prozesuari eta lortutako emaitzari buruzko gogoeta egiten du, prototipo berritzaileak eta baliozkotzeko sortzeko prozesua burutzeko, esperientzia ikasteko aukeratzat hartuta.

KONTZIENTZIA ETA ADIERAZPIDE KULTURALERAKO KONPETENTZIA (KAKK)

Berekin dakar ideiak eta esanahiak ulertzea, balioestea eta adieraztea, hainbat forma artistikoren eta kultura-adierazpenen bitartez. Aniztasunarekiko errespetua, norberaren nortasunaren garapena eta gizarteko kide izatearen sentimendua bultzatzen ditu, kulturen arteko elkarrizketa eta kultura-bizitzan sormenez eta modu esanguratsuan parte hartzea sustatuz.

KAKK1. Edozein garaitako ondare kultural eta artistikoaren funtsezko alderdiak ezagutu, kritikoki estimatu, errespetatu eta sustatzen ditu, eta bere nortasuna eraikitzeko kultura- eta arte-aniztasunari datxekion adierazpen-askatasuna eta aberastea baloratzen ditu.

KAKK2. Gozatu, ezagutu eta aztertu autonomiaz ondareko adierazpen artistiko eta kultural nabarmenenen berezitasunak eta intentzionalitateak, haien hizkuntza eta elementu teknikoaren bidez, edozein bitarteko edo euskarritan.

KAKK3. Ideiak, iritziak, sentimenduak eta emozioak sormenez eta modu irekian adierazten ditu. Autoestimua, sormena eta pertenezia-sena garatzen ditu, adierazpen kultural eta artistikoaren bidez, enpatiaz eta lankidetzazko jarreraz.

KAKK4. Interpretazioaren, exekuzioaren, inprobisazioaren eta konposizio musikaren bidez produktu artistikoak eta kulturalak sortzeko oinarritzko baliabide/euskarri plastikoak, ikus-entzunezkoak, soinuak eta gorputzezkoak ezagutzen, hautatzen eta sormenez erabiltzen ditu. Eskaintzen dizkioten garapen pertsonal, sozial eta ekonomikorako aukerak identifikatzen ditu

© UNHCR / I. Zoni



BABESA 4.7

ACNUR Euskal Batzordeak konpromiso sendoa du sentsibilizazioarekin, parte-hartze solidarioarekin eta Herritartasun Globalerako Hezkuntzarekin. Horregatik, hezkuntza-komunitateekin lankidetzan aritzea —ikastetxeekin, institutuekin eta unibertsitateekin— funtsezkoa da giza eskubideen defentsarekin kontzienteagoak, enpatikoagoak eta aktiboagoak izango diren belaunaldiak prestatzeko.

Zuen lanari esker, gero eta gazte gehiagok uler dezakete errefuxiatuen eta desplazatuen errealitatea, baita ACNURek pertsona horien giza eskubideen alde zer lan egiten duen ere.



Esteka honetako prestakuntza-ibilbideen bidez, Bigarren Hezkuntzako ikasleen sentsibilizazioa eta parte-hartzea sustatzen da, gizarte inklusiboak eta xenofobiarik gabeak eraikitzen bideratutako komunitatearen zerbitzurako proiektuetan, genero ikuspegia kontuan hartuta.

Ikaskuntzan, zerbitzuan eta ebaluazioan oinarritutako bide pedagogiko horiek “jakitea” eta “egiten jakitea” lotzen dituen prozesu bat eskaintzen dute, kompetentzietan oinarritua. Halaber, ezagutzak, abileziak eta jarrerak barneratzea sustatzen dute, modu kritiko eta eraginkorrean aurre egin ahal izateko desberdintasun-, bidegabekeria- eta diskriminazio-egoerei.



Gizarte eta GENERO justiziarekin konprometitutako herritartasun globala

Mozambiketik egoerari arreta berezia jarri

HELBURUA

ibilbide honen helburua zerbitzu-hezkuntza prozesu bat garatzea da, ikasleek aukera izan dezaten desplazatutako/italitako nekazari, merkatu eta enakumen errealitateak zailtasunak giza eskubideen ikuspegiak, modu kritikoan ulertzea, justizia sozialarekin eta genero-justiziarekin konprometitutako herritartasun globala erabiltzea.

KOMPETENTZIAK

CCL1	STEM3	CC2
CCL2	CD1	CC3
CCL3	CPSAA1	CC4
CCL5	CPSAA3	CE1
CP1	CPSAA4	CCEC3
STEM2	CC1	

KOMPETENTZIAK AZTERTU

20 SAIO

ZERBITZU - IKASKUNTZA

HEZKUNTZA ZIKLOA	IKASLEAK
DBH1 eta 2	15 BAINO GUTXIAGO

AURKIBIDEA

FASEA	IBILBIDEA	EDUKIA
IKASKUNTZA	1. SAIOA	ENPATIZATZEA
	2. SAIOA	ULERTZEA
	3. SAIOA	TESTINGURURUAN KOKATZEA
ZERBITZUA	4. SAIOA	SORTZEA
	5. 6. 7. 8. 9. 10. 11. 12. 13. 14. ETA 15. SAIOAK	KOMUNKATZEA
EBALUAZIOA	16. 17. 18. ETA 19. SAIOAK	SENTSIBILIZATZEA
	20. SAIOAK	EBALUATZEA



GIDA DIDAKTICA BUKI

IBILBIDEAK



